

AKORDIOA, 2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO OHIKO PROZEDUREN BIDEZ KARRERAKO FUNTZIONARIOA IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIARENA, GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA - ZUZENBIDEA (OHIKO PROZESUA) DEIALDI ESPEZIFIKOREN BEHIN-BEHINEKO AZKEN KALIFIKAZIOA ONARTZEN DUENA. 2022KO URRIAREN 20KO EBAZPENAREN BIDEZ EGIN ZEN DEIALDIA.

II. eranskineko 8.7 oinarri orokorrak honako hau, deialdiari dagokionez, ezartzen du:

8.7. Deialdi espezifikoko bakoitzeko azken kalifikazioa.

Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa hau izango da:

- *Lehiaketa-oposizioaren bidezko deialdi espezifikoetan, oposizio eta lehiaketa faseetako puntuazioen eta euskarako puntuazioaren batura.*
- *()*

Deialdi espezifikoko bakoitzeko behin-behineko kalifikazioa erakundearen web gunean argitaratuko da lortutako puntuazioaren arabera ordenatutako zerrendan, eta adierazita izenabizenak eta NANaren edo atzerritarren, pasaportearen edo agiri baliokidearen identifikazio zenbakiaren ausazko lau zifra.

Hautagaien artean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek ordena honetan aplikatuz erabakiko da hurrenkera:

()

Lehiaketa-oposizioaren bidezko hautaketa sistema

- 1) Puntuaziorik handiena UPV/EHUko lan esperientzian, deialdiko eskala berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 2) Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 3) Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, deialdiko eskala berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 4) Puntuaziorik handiena merezimenduen ataletako bakoitzean, deialdiko oinarrietan zehaztutako hurrenkerari jarraikiz, eta kontuan hartu gabe horietako bakoitzerako zehaztutako puntuazio mugak.*
- 5) Oposizio fasean lortutako puntuaziorik handiena.*
- 6) Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 27.2 artikuluan zehaztutakoari jarraituz, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia % 40ren azpitik dagoen administrazioko kidego, eskala, maila eta kategorietan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.*
- 7) Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta daudenen artean UPV/EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkera ezarriko da.*

Azaldutakoaren arabera, epaimahaiak hautagaiak ordenatu ditu, oinarrietan berdinketa hausteko ezarritako irizpideak aplikatuz.

Horrenbestez, hautaketa-prozesu honetako epaimahaia bilduta, eta adierazitako oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.– GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA - ZUZENBIDEA (OHIKO PROZESUA) deialdi espezifikoren gaindituen behin-behineko azken kalifikazioa onartzea, lortutako puntuazioaren arabera eta hautaketa-prozesuko fase guztietako nota partzialak jarrita.

BIGARRENA.– Horretarako gaitutako UPV/EHUko web-orrian eta UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea (https://gestionenplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp); gaindituen behin-behineko kalifikazioaren zerrenda hori kontsultatzeko.

HIRUGARRENA. – Zazpi (7) egun baliouduneko epea zabaltzea, erabaki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hautagaiek erreklamazioak egin ditzaten, hala badagokio, bidezko erreklamazioa egin dezaten UPV/EHUren egoitza elektronikoan (<https://egoitza.ehu.eus/es>) eta 5.3 oinarri orokorrean azaldutako lekuetan.

Leioan, sinadura elektronikoan agertzen den datan,

Epaimahaiko idazkaria

Maria Arias López de Lacalle